

ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENAREN JARRAIPENARI ETA EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA (2004)

Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

2001eko urriaren 18an onartu zen *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmenaren* bosgarren hizbaketaren e) idatz-zatian xedatutakoaren arabera, Hitzarmena sinatu duten erakundeek akordioan jasotako edukien betetze-mailari buruzko jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txosten bat landu behar dute ekitaldi bakoitza amaitzean.

Agiri honen bidez, testu bakar batean eta ordenan antolatu nahi da Hitzarmena sinatu duten erakundeek idatzitako jarraipen- eta ebaluazio-txosten partzialetan jasota dagoen informazioa, era horretan, Hitzarmenean ezarritako konpromisoen eta jarraibideen betetze-mailaren ikuspegi orokorra islatu ahal izateko.

Hitzarmenak berak ezarritako irizpideari jarraituz, bi zatitan banatu da orain aurkezten den agiri hau. Lehenengo zatian Hitzarmena sinatu duten erakundeek, Hitzarmenaren jarduera protokoloan agertzen diren neurriak eta jarraibideak eraginkortasunez aplikatuko direla bermatzeko, 2004. urtean egin dituzten ekintzak jaso dira. Illo horretan egindako aurreikuspenak zein neurritan bete diren jakiteko oso lagungarria da erakunde arteko Hitzarmena aplikatzeko neurriei buruz (2004) Jarraipen Batzordeak 2004ko maiatzaren 14an onartutako agiria; izan ere, agiri horretan aipatzen dira Hitzarmena sinatu duen erakunde bakoitzak 2004ko ekitaldirako aurreikusita zituen neurriak.

Bestalde, txostenaren bigarren zatian, hitzez hitz adierazi dira erakunde bakoitzak, dagokion esparruan, Protokoloaren betetze-mailari buruz landutako txosten partzialetan egin dituen balorazioak¹.

Emakunde, 2005eko apirilaren 20a

¹ Ez dira aipatzen Sendagileen Euskal Kontseiluak egindako balorazioak, ez baitituzte Jarraipen Batzordera igorri.

A) BURUTUTAKO EKINTZAK

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Gaia dela-eta bidezkoa izan denean, lehendakariak, jendaurrean egin dituen agerpenetan, berariaz aipatu ditu emakumeen aurkako indarkeria eta erakunde arteko Hitzarmena.

Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartu du, hartara, gizarte osoa eta, bereziki, gizonak sentsibilizatzeko, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta indarkeria horren biktimei laguntzeko lanetan konpromisoa har dezaten.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA

Euskal Herriko tokian tokiko poliziek etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz ezagutzen duten informazio estatistikoaren biltze- eta ustiatze-lana koordinatu, homogeneousatu eta sistematizatzeko araudia lantzea sustatu du, baina ezin izan da erabat burutu.

Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei lotuta Ertzaintzak ezagutzen dituen arau-hauste penalen biktimei buruzko estatistikak Emakunderi bidaltzen jarraitu du.

Hala behar izan denean, salaketaren kopia eman die etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei, adierazpena beste toki batzuetan errepikatu behar ez izateko.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian eskaintzen diren prestakuntza-ikastaroetan, erakunde arteko Hitzarmenean jasota dauden polizia-esparruko konpromisoei eta jarraibideei buruzko edukiak sartzen jarraitu du.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko irakasle berriei etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen arloko prestakuntza eman die, eta gehienbat erakunde arteko Hitzarmena nabarmendu du.

Emakunderekin batera, etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko prestakuntzako ikastaro bat antolatu du, Ertzaintzarentzat eta tokian tokiko polizientzat.

Udalerriek berek hala eskatu dutenez, prestakuntzako ikastaroak antolatzen jarraitu du tokian tokiko polizientzat, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten direnean nola jokatu behar den erakuste aldera, eta Hitzarmenaren edukia berariaz aipatu du.

Aldian-aldean bilerak egin ditu Fiskaltzarekin, etxeko tratu txarren jarraipena egiteko eta babeserako tresna egokiak ezartzeko.

Etxeko indarkeriaren biktimei laguntza eta babesa eskaintzeko 2003. urtean ezarri zen proiektuarekin lanean jarraitu du; eta, hartara, abian jarri du etxeko indarkeriari buruz egindako kudeatze- eta ikertze-lanak biltzeko sortutako tresna informatikoa, eta, orobat, sakelako telefonoak banatu dizkie egoera larrienean dauden biktimei.

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa ezarri du herritarren segurtasunerako unitateetan.

Etxeko tratu txarrei buruz Segurtasun sailburuordeak emandako 48. zenbakiko Agindua aldatzeko zirriborroa prestatu du, hartara, agindu hori legeetan egindako berrikuntzetara egokituz; eta, horrenbestez, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren alderdi batzuk barne hartu dira.

Hitzaldiak eman ditu, etxeko indarkeriaren kasuetan jarraitzen den prozedura poliziala ezagutzera emateko.

Ertzaintza Gaur aldizkariaren bidez, etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko erakunde arteko Hitzarmenari eta agindu polizialei lotutako alderdi batzuk ezagutzera eman dizkie ertzain guztiei.

Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartu du.

Azaroaren 25ean egiten den erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Lege-aurreproiektuaren zirriborroan, etxeko indarkeriaren biktimei etxebizitzak emateari dagokionez, azaltzen diren proposamenak etxebizitzari buruzko araudian txertatu ditu.

Abegi-baliabideen antolakuntza eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretuaren zirriborroa prestatu du.

Diru-laguntzak emateko orduan, lehentasuna eman die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eta sostengua eskaintzen dizkieten proiektu sozialei.

Emakunderekin lankidetzan arituta, *Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean?* triptikoa itzuli du ingelesera, frantsesera, txinerara eta arabierara; eta, orobat, atzerriko biztanleei banatu die.

Emakunderekin batera, informazioko eta sentsibilizazioko jardunaldi bat egin du, emakumeen aurkako indarkeria asilo-eskubidea eskatzeko moduko bidezko arrazoia dela sustatzeko.

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko egiten den erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainaren finantzazioan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida prestatzeko lanetan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren biktimenezako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa onesten eta ezartzen parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Hiru hilabeteen behin, *Babesteko agindua eraginkorra izan dadin prestatutako jardueren protokoloen* jarraipena egin du; probintzia-auzitegiek, magistratuek, epaile dekanoez, Fiskaltzak, Herrizaingo Sailak, tokiko poliziek eta abokatuen elkargoek eta prokuradoreek sinatu dituzte protokolo horiek lurralde historiko bakoitzean.

Etxeko tratu txarrei edo sexu-erasoei dagokienez Auzitegiko Medikuntzaren arloan ezarritako protokoloak behar bezala betetzen ote diren egiaztatze aldera, hiru hilez behingo jarraipena egin du.

Abokatuen elkargoekin eta Legekarien Euskal Kontseiluarekin sinatutako Hitzarmena ebaluatu eta berrikusi du, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen esparruan, atzeman diren akatsak zuzentzeko eta egin beharreko hobekuntzak sartzeko.

Prestakuntzako bi ikastaro berezi antolatu ditu epaileentzat, idazkarietzat eta Fiskaltzarentzat, epaiketa azkarren, etxeko indarkeriaren eta babes-aginduen arloan.

Etxeko indarkeriari buruzko ikastaro bat antolatu du lurralde historiko bakoitzean abokatuentzat. Etxeko indarkeriaren txandan izena emanda zeuden abokatuak nahitaez joan behar izan dute ikastaro horietara.

Etxeko indarkeriaren biktimei babesa emateko agindua arautzen duen 27/2003 Legeari buruzko prestakuntzako ikastaro bereziak antolatu ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritako gizarte-zerbitzuetako langile teknikoentzat.

Sailean sortutako taldearen lana areagotu du, Hitzarmena abian jartzeko proposatutako jarduera eta hipotesi guztiak berrikusteko bide arrunt gisa; bertan, Delituaren Biktimari Laguntzeko zerbitzuetako, Laguntza Juridikoko zerbitzuetako eta judizialak ez diren gainerako zerbitzu osagarrietako ordezkariak parte hartzen dute. Talde hori Fiskaltzarekin, Ertzaintzarekin eta gainerako poliziekin koordinatu da, bai eta Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearekin eta Hitzarmena bultzatzeko erakunde arteko Talde Teknikoarekin ere.

Tresna informatikoz hornitu ditu etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua koordinatzen duten hiru zentroak, era horretan, tratamendu estatistikoa ere egin ahal izateko eta, horrez gain, babes-aginduak berehala bidali ahal izateko dagokien gizarte-zerbitzuei.

Biktimari Laguntzeko zerbitzuen funtzionamendu-metodoak hobetu ditu; eta, horretarako, sistema informatiko berriak jarri ditu abian, prozesuak homogeneizatu ditu, txostenak lantzeko eta hitzorduak emateko dauden atzerapenak gutxitu ditu eta abar.

Biktimari Laguntzeko zerbitzuei buruzko triptikoak eta dibulgazioko materiala banatu du, hartara, etxeko indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean zerbitzuok eskaintzen duten laguntza ezagutzera ematen jarraitzeko.

Giza eskubideen esparruko laguntzen deialdian, arreta berezia eskaini die etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko programei eta jardueri.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa prestatzen eta onesten parte hartu du.

Azaroaren 25ean egiten den erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA

Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloa ezagutzera emateari eta sistematikoki ezartzeari buruz 2002. urtetik egin diren ebaluazioekin jarraitu du.

Lehen Mailako Atentzioko eskualde guztiei eta Osakidetzaen ospitaleei nahiz pribatuei gogorarazi die guztiz garrantzitsua dela eta *Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloa* behar bezala eta zuzen betetzea.

Osasun-zentroetarako eta ospitaletarako materialak berriz argitaratu ditu. Gainera, jarduera azkarrago, zuzenago eta sistematikoagoa egite aldera, Tratu txarrei buruzko osasun protokolo informatizatu du, norberak bete ahal izateko modukoa izan dadin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Erizaintzako IV. Jardunaldietan mahai-inguru bat antolatu du, gaia: "Erizaina tratu txarraren aurrean".

Estatu osoan indarkeriari eta lehenengo sorospenari buruz argitaratu nahi den materiala berrikusi eta EAEko egoerara egokitu du, osasun-arloko langileei eskuragarri jartzeko.

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta egiten den erakunde arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egiten duten lana sustatu eta koordinatu du.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena eguneratu du, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jardueri dagokienez eta Jarraipen Batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egindako lanari dagokionez.

Aldiro-aldiri, Emakundek bere web orrian irekitako *Emakumeen aurkako Indarkeria* izeneko sekzioa eguneratu eta elikatu du, hartara, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jardueri eta Jarraipen Batzordeak egindako lanari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko.

*Erakunde arteko Hitzarmena aplikatzeko neurrien Plan*ean 2004. urteari dagokionaren berariazko ebaluazioa egin du.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Lege-aurreproiektuaren zirriborroan, kapitulu bat sartu du emakumeen aurkako indarkeriari buruz, eta, hor, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima guztiei oro har bermatu behar zaizkien eskubideak eta gutxieneko baliabideak finkatu dira.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida prestatzeko lana koordinatu du.

Etxeko tratu txarraren eta sexu-erasoen arloan profesionalei prestakuntza emateko materialak lantzeko prozesua hasi eta koordinatu du, esku hartzeko arloak aintzat hartuta: osasun-arloa, arlo poliziala, judiziala, abokatutza eta gizarte-zerbitzuak.

Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean esku hartzeko masterra* diseinatzeko eta finantzatzeko lagundu du.

Hitzarmenari lotutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko aholkularitza tekniko eskaini die erakunde publikoei eta pribatuei.

Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du.

Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzarekin lankidetzan arituta, *Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean?* triptikoa itzuli du ingelesera, frantsesera, txinerara eta arabierara; eta, orobat, atzerriko biztanleei banatu die.

Azaroaren 25eko den erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina koordinatu eta kanpainaren finantziazioan parte hartu du. Kanpaina osatze aldera, Emakundek iragarki laburrak prestatu eta irratian sartu ditu, gizartea oro har eta, gehienbat, gizonak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean sentsibilizatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzarekin batera, informazioko eta sentsibilizazioko jardunaldi bat egin du, emakumeen aurkako indarkeria asilo-eskubidea eskatzeko moduko bidezko arrazoia dela sustatzeko.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa koordinatu du eta horren ezarpenean parte hartu du.

Emakunderen diru-laguntzei buruzko dekretuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, eta, orobat, indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko jardueri lehentasuna emango dieten balorazio-irizpideak sartu dira.

Eudelekin batera, prozesu bat hasi du berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea abian jartzeko.

Proposamen bat egin du Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko gizarte-sare bat sortzeko.

Udaletako berdintasunerako agenteekin batera, lan-talde bat koordinatu du, erakunde arteko Hitzarmena ezar dadila sustatzeko, eta, hala behar izanez gero, Hitzarmen hori udalerrietako egoeretara egokitzeko.

Etxeko tratu txarren biktimenezako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programaren onespina bultzatu eta koordinatu du.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloaren onespina koordinatu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesua koordinatu du.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiarekin batera, etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko prestakuntza-ikastaro bat antolatu du, Ertzaintzarentzat eta tokian tokiko polizientzat.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida landu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartu du.

Emakumeei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua handitu egin du, eskaria gero eta handiagoa baita. Bestalde, familia-indarkeria jasaten duten pertsonen laguntza espezializatua eskaintzeko dauden gainerako zerbitzuak eskaintzen jarraitu du.

Tratu txarren biktima diren emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzu Integrala sortzeko —2003. urtean sortu zen— Abokatuen Elkargoarekin egindako lankidetzahitzarmena ebaluatu du.

Etxeko indarkeriaren biktimen babes-aginduari dela eta, Arabako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuen jarduteko protokoloa prestatu du, eta beharrezkoak izan diren koordinazio-kanalak ireki ditu.

Gizarte Gaietako Sailak diru-laguntzak emateko 2004. ekitaldian egin dituen deialdien bitartez, diruz lagundu ditu genero-indarkeriari lotutako prestakuntza-, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak.

Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa onesten eta ezartzen parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa prestatzen eta onesten parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Sentsibilizazio-kanpaina egin du azaroaren 25ean, emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna denez, Diputatu Nagusiaren Sailaren Komunikazio Zuzendaritzaren bidez. Era berean, sentsibilizazioko beste jarduera batzuk egin ditu egun hori dela-eta, hain zuzen, interpretazioko lantegi bat eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko antzezlan bat.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko esparruan, eta erakunde arteko Hitzarmenari dagokionez, beste erakunde batzuek antolatutako jarduerak diseinatzeko eta gauzatzeko lagundu du.

Emakumeen aurkako indarkeria: arazoak eta baliabideak izeneko jardunaldia antolatu du.

Etxeko tratu txarren biktimei diren emakumeei eta haien kontura dituzten seme-alabei eskaintzen zaizkien larrialdietako abegi-zentroari baliabide material eta giza baliabide gehiago esleitu dizkio, zentroa indartzearen; eta, gaur egungo instalazioei dagokienez, barruko eta kanpoko oztopo arkitektonikoak kendu ditu, hartara, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak sartu eta irten ahal izateko.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia jarri du abian: Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen informazioa zentralizatzeko eta aholkularitzako kide anitzeko organo gisa da. Behatokiaren xedea da genero-indarkeriaren berri jakin ahal izatea eta maila guztietan zer bilakaera duen ikustea, biktimei eskaintzen zaizkien zerbitzu eta prestazioentzako hobekuntzak proposatzeko.

Emakumezkoen zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuko balorazio-irizpide bezala, lehentasuna eman die abegia eta aholkularitza juridikoa zuzenean eskaintzeko diren jardueri.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei diren emakumeei zuzendutako Laguntza Psikologikoko Zerbitzuaren asteko zerbitzu-orduak zabaldu egin ditu, eta etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetarako dauden gainerako zerbitzu espezializatuak mantendu egin ditu.

Indartu egin du Familien Topaketarako Zerbitzua.

Azaroaren 25ean egiten den erakunde arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Euskal Autonomia Erkidegoko abegi-zentroen antolatze eta funtzionatzeko baldintzak eta irizpideak arautzeko araudia prestatzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida prestatzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren biktimetzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa onestea eta ezartzea sustatu du.

Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren web orria diseinatu du.

Bizkaian tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako abegi- eta egonaldi-zentroen erabilerari eta eskaerari buruzko azterlan bat diseinatu eta kontratatu du.

Bizkaiko Familien Topaketarako Zerbitzuaren erabilerari eta eskaerari buruzko azterlan bat diseinatu eta kontratatu du.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Barne Prestakuntzako Planaren barruan, ikastaro bat antolatu du, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen Legeari buruz, Gizartekintza Saileko Umeen Zerbitzuko eta Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuko langile teknikoentzat.

Lankidetzan aritu da etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren Legeari buruzko eta Babes-aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloari buruzko jardunaldia antolatzen; jardunaldia udaletako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuetako langile teknikoentzat izan da.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa prestatzen eta onesten parte hartu du.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoa osorako larrialdietako zerbitzua esleitzeko lizitazioa egin du, larrialdi egoeran dauden pertsonen zuzenduta. Zerbitzu horrek informazioa, laguntza eta sostengua modu profesionalean eskainiko dizkie etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei.

Familien Topaketarako Zerbitzua esleitzeko lizitazioa egin du, era horretan, zaintzarik ez duten gurasoek hurrei bisitak egiteari buruzko ebazpen judizialak betetzeko.

Laguntza psikologikoko programak, Gizarte Ekimenerako Laguntza Planaren esparruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak, eta lurraldean etxeko tratu txarren biktimei laguntza emateko dauden abegi-baliabideak ebaluatu ditu; eta, orobat, SOS/DEIAKekin batera, gizarte-zerbitzuen ohiko ordutegitik kanpo egin diren larrialdiko abegien jarraipena egin du.

Gizarte Ekimenerako Laguntza Planaren bidez, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko edo horretaz sentsibilizatzeko jarduerak egiten dituzten edota biktimei laguntza, sostengua eta bultzada ematen dizkieten elkarreentzako diru-laguntzak gehitu ditu.

Lurraldean parte hartu du letratuen parte hartzearekin egindako Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan, Laguntza Juridikoko Zerbitzuan, Ertzaintzan, gizarte-langileekin, elkarrekin eta abarrekin.

Ertzaintzaren, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren eta Laguntza Juridikoko Zerbitzuaren arteko koordinazio-bilerak sistematizatu ditu, eta aldian-aldian udal-zerbitzuekin bilerak egin ditu, hartara, irizpideak bateratu, zailtasunak aztertu, aldaketak proposatu eta abarrerako.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa prestatzen eta onesten parte hartu du.

Udaletako gizarte-zerbitzuentzako prestakuntza-jardueretan parte hartu du, biktimei ematen zaien laguntza, koordinazioa eta segurtasuna hobetze aldera; eta babes-agindua arautzen duen 27/2003 Legearen ondorioz sartu diren aldaketa berriak barne hartu dira, etxeko indarkerian eta sexu-erasoetan espezializatutako ofizioko txanda berriari dagokionez.

Prestakuntza-jarduerak egin ditu sostengua eta laguntza emateko sare bat eratze aldera.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida prestatzeko lanetan parte hartu du.

Azaroaren 25ean egiten den erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du. Era berean, egun hori dela-eta, sentsibilizazio-jardueren programa prestatu eta bete du.

Datu-bilketa egiteko sistema bateratua prestatzeko prozesuan parte hartu du, hartara, izan daitezkeen indarkeria kasuak hobeto koordinatzeko eta kasu bakoitza dagokion erakundera hobeto bideratzeko, eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduari buruz udaletako gizarte-zerbitzuei zuzendutako bi jardunaldi antolatu ditu, eta, orobat, beste jardunaldi batzuk antolatu ditu, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko jardunaldiak antolatu ditu.

EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

Eudelen web orriaren bidez, erakunde arteko Hitzarmena ezagutzera eman du eta, horrezaz gain, Eudelen ordezkartza duten bestelako jarduerak eta protokoloak ere bai.

Arlo honi lotuta dauden lege-xedapenen ondorioz itundutako ekintzak gauzatzeko zuzeneko ardura duten udal-langileen prestakuntzarako guneak proposatzen jarraitu du.

Arlo honetan aurkezten diren legegintzako ekimenak eta gainerako testu arau-emaeleak aztertu ditu, eta haiek hobetzeko ekarpenak eta oharrak egin ditu.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa prestatzen eta onesten parte hartu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa onesten eta ezartzen parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuen arloko datua biltzeko sistema bateratua prestatzeko prozesuan parte hartu du, hartara, izan daitezkeen indarkeria kasuak hobeto koordinatzeko eta kasu bakoitza dagokion erakundera hobeto bideratzeko, eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Emakunderekin batera, prozesu bati ekin dio berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea abian jartzeko.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN FISKALTZA

Erabaki diren zuhurtasunezko neurriak berehala jakinarazi dizkio Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, hartara, neurriok betetzen diren zaintzeaz arduratzen diren poliziako agintariek behar bezala jasota izan ditzaten eta betetzen direla kontrola ditzaten.

Ertzaintzaren lurralde-burutzekin bilerak egin ditu hilero, hartara, salatu diren etxeko tratu txarren kasuen artean, arriskua dela-eta larrienak diren kasuen jarraipena egiteko eta, hala behar izan denean, zuhurtasunezko neurri zorrotzagoak eskatu ahal izateko.

Erakunde arteko Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako

prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartu du.

LEGEKARIEN EUSKAL KONTSEILUA

Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen inguruko hiru prestakuntza-ikastaro antolatu ditu abokatuentzat; ikastaro horiek nahitaez egin beharrekoak dira, bai berariazko ofizioko txandan izena emateko, bai eta txanda horretan jarraitzeko ere.

Bizkai Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Praktika Juridikorako Eskolaren ikastaroan arlo hauei buruzko prestakuntzako edukiak sartu ditu.

Lankidetzan jarraitu du lanean Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailarekin eta arlo honetan inplikaturik dauden beste erakunde batzuekin — hala nola, foru-aldundiekin eta udalekin—.

Liburuxkak banatuz eta hainbat komunikabidetan azalduz, ezagutzera eman du elkargo bakoitzaren 24 orduko Zaintza Zerbitzua, bai eta berariazko ofizioko txanda ere.

Emakunderekin lankidetzan aritu da, Abokatutzako profesionalentzako prestakuntza-materiala lantzen, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen arloan.

Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartu du.

Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

SENDAGILEEN EUSKAL KONTSEILUA

Elkargoko kideen artean zabaldu ditu erakunde arteko Hitzarmena, Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloa eta agiri horiekin zerikusia duten bestelako agiri batzuk.

Azaroaren 25eko erakunde arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

B) JARDUERA PROTOKOLOAREN BETETZE-MAILAREN BALORAZIOA

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

“Protokoloan ezarritako jarduera materialak eskumen bereziak dituzten sailei dagozkie, baina, hala ere, Lehendakaritzak ahalegina egin du bere gain hartutako konpromisoak betetzeko, normalean instituzio guztientzat generikoak diren jarduerak egiteko, alegia.

Gauzatu diren neurri bereziei dagokienez, lehendakariak, jendaurrean jardun duenean, berriazko aipuak eta erreferentziak egin ditu emakumeen aurkako indarkeriari buruz, bai Politika Orokorreko Eztabaidan, bai eta Berdintasunerako Legearen aurkezpenen ere. Era berean, Jaurkitzearen Kontseiluak gaitzesteko jakinarazpenak egin ditu, baina ezin izan da Eusko Legebiltzarrean Adierazpen bat gauzatu.

Bestetik, Lehendakaritzak parte hartu du azaroaren 25eko sentsibilizazioko kanpainan, bere iritzia eman du alderdi formal batzuei buruz, eta lankidetzan aritu da lehenak, diseinuak eta horrelakoak aukeratzeko eta, orobat, kanpaina finantzatzeko; horri esker, material egokia prestatu ahal izan da.

Azkenik, ezin izan da ahalegin handiagoa egin gauzatu diren sentsibilizazio-jardueretara joateko laguntza emateko, baina, egia da nekeza izaten dela ikastaroa, jardunaldia... hautatzea, zeren, askotan Lehendakaritzarekin zerikusirik ez duten jardun-eremuetan aritzen diren langile-taldeei zuzenduta baitaude”.

EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA

“Protokoloaren betetze-mailaren balorazioa ona da.

Erakundearen ikuspegitik, Herrizaingo Sailak parte hartu du Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egin dituen sentsibilizazio-ekintzetan, eta, orobat, parte hartu du etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean.

Prestakuntzari dagokionez, Sailak hainbat ikastarotan eta jardunalditan hartu du parte, eta Abokatuen elkargoek eta osasun-arloko langileek eskatutako hitzaldiak eman ditu. Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak irakasle eta ikasle berriei etxeko tratatu txarraren eta sexu-erasoen arloko prestakuntza ematen jarraitu du.

Babesari dagokionez, besteak beste, Gizarte-zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa ezarri da herritarren segurtasunerako unitateetan, eta, orobat, abian jarri da biktima horiekin egindako jardueren berri bilduko duen tresna informatikoa. Era berean, egoera larrienetan dauden biktimei sakelako telefonoa eskaini zaie, Ertzaintzarekin zuzeneko konexioa duena, larrialdietan erabiltzeko. Horrez gain, 2004. urtean, horri dagokionez ezarritako protokoloa betez, 5 kasutan (4 Gipuzkoan eta 1 Bizkaian), Herrizaingo Sailak biktima etengabe zaintzeko, ildo horretan ofizio judizial bat jaso ondoren, babes-zerbitzu bat kontratatu du. Familia-arloko gertakariak prebenitzeko zereginei dagokienez (gehienbat emakumeen aurkako indarkeria prebenitzera zuzenduta daudenak), zeregin horretan aritzen diren Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako Alorreko agenteek egiten dituzten orduak %24,2 hazi dira; hala, beraz, 2003. urtean 3.683 ordu izan ziren, eta 2004. urtean, berriz, 12.626 ordu.

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

“Proposatu diren 10 neurrietatik, 7 bete dira. Bete ez diren 3 neurrietatik, 2 egiten ari dira, eta 2005. urtean bukatuko dira; besteari dagokionez, lanean jarraitu beharko da eskumena duten administrazioak proiektuan sar daitezen eta beren gain har dezaten.

Hortaz, balorazioa ona da, zeren proposatutako neurrien %90 burutu baitira edo burutzen ari baitira.”

EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

“2004. urtean Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak Erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan etxeko tratu txarraren eta sexu-erasoen biktima diren emakume guztiei laguntzeko aurreikusita zeuden ekintza guztiak egin ditu.

Beste erakunde batzuen lankidetzarekin egin diren jardueretan, erakunde horiek interesa erakutsi dute eta prest azaldu dira beren gain hartutako konpromisoak egiteko, eta, hori dela-eta, gauza asko lortu dira, besteak beste, genero-indarkeriaren arazoari eraginkortasun gehiagoz ekiteko ahaleginak batzen dituzten operadore juridikoen eta sozialen arteko koordinazioa.

Alabaina, 2005. urtean indarrean sartuko diren araudietako xedapen berrien arabera, egindako jarduera asko berrikusi behar izango ditugu; eta, hala ere, Jarduera Protokoloaren betetze-mailaren ebaluazioa ona da. Alabaina, horrek ez du esan nahi helburuak arindu egingo direnik, baizik eta etxeko indarkeria eta genero-indarkeria gure Autonomia Erkidegotik desagerrarazteko konpromisoarekin lanean jarraituko dela.

EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA ETA OSAKIDETZA/EOZ

“Hauek dira lehen mailako atentzioko osasun-zentroetan eta Osakidetzaren ospitaletan/EOZ 2004. urteko betetze-mailari buruz egin den aurreneko inkestaren emaitzak. Protokoloa betearazi behar da, batez ere ospitaleko larrialdietako zerbitzuetan, era horretan, “ohitura” bilakatzeko, hori nahitaezkoa baita jardun mediku egokiaren lehentasunezko zerbitzuen eskaintzan.

Tratu txarren kasuak iritsi badira zentrora, Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloan adierazita dauden jarraibideak bete al dira?

	Kopurua	%
<i>Bai, kasu guztietan.</i>	51	22
<i>Bai, kasu batzuetan</i>	14	6
<i>Ez</i>	4	2
<i>Ez da kasurik egon</i>	130	56
<i>Ez daki</i>	9	4
<i>Ez du erantzun</i>	24	10
GUZTIRA	232	100

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

“Emakunderen helburua bultzatzea da, ez etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei zuzeneko laguntzarik ematea; hargatik, ez du epaitzeko behar adina osagairik, biktimei dagozkien arloan laguntza zuzenean emateko ardura duten profesionalek protokoloa, esku hartzeko eremu ezberdinetan (osasun-arloa, poliziala, judiziala, Abokatuen elkargoena eta gizarte-zerbitzuena), zer neurritaraino bete duten balioetsi ahal izateko.

Alabaina, aurreko urteetan egin den bezala, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sailari eman zaio, EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren ebaluazioaren esparruan, datu-ikerketa berezia egiteko ardura; eta, hartara, 2004. urtean erakunde arteko Hitzarmena aplikatuz, zein neurri-mota egin den, zeinek egin dituen, zeinentzat egin den, zenbat balio izan duten eta horrelakoak aditzera emango ditu. Ebaluazio hori bukatu ondoren, horren berri emango zaio Jarraipen Batzordeari eta Emakunderen web orriaren bidez emango da ezagutzera.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

“Indarkeriaren biktimei laguntza psikologikoa emateko diren Laguntza Bereziko Zerbitzuei dagokienez, eskaria gero eta handiagoa da, eta, hartara, eskari hori aztertzen ari gara, laguntza behar bezala emateko behar diren profesionalak prest eduki ahal izateko. Lankidetza-hitzarmena sinatu da Vitoria-Gasteizko Udalarekin, zerbitzu horiek emate aldera.

Alabaina, aurrekontua luzatuta izan arren, urteko bigarren seihilekoan, beste terapeuta bat sartu da programan, eta beste bat 2005eko ekitaldiaren hasieran; eta, horretarako, ahalegina egin behar izan da aurrekontu aldetik.

Beste erakunde batzuekiko koordinazioari dagokionez, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuordetzari dagokionaren berri eman beharra dago, Arabako nekazaritzako inguruneetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei eta, orobat, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartekintza Arloko langile teknikoei zuzendutako prestakuntza dela-eta. Justizia Zuzendaritzako aholkulariek eman duten prestakuntza horren ondorioz, lana modu koordinatuan egiteko eta, kasu bakoitzean behar denaren arabera, informazioa eskuz aldatzeko edo esku hartzeko dinamika sortu da, eta oso pozik gaude horrekin.

Beste alde batetik, Vitoria-Gasteizko Udaleko Lehendakaritza Saileko Berdintasunerako Zerbitzuarekin lankidetzara estua dago, lankidetzara-hitzarmena sinatu baita harekin, jarduneko programa eta zerbitzu batzuei buruz.”

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

“Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuan etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza ematen jarduten garen profesionalok esan dezakegu Hitzarmena hainbat arlotan bete dela. Horietako batzuk hauek dira:

Gizarte Zerbitzuak.- Oinarrizko Gizarte zerbitzuetara jotzen duen emakumeak laguntza eta informazioa jasotzen du. Eskura dituen baliabideen berri ematen zaio, eta laguntza ematen zaio egoera emozionalari dagokionez. Zerbitzu berezi horietara bideratutako kasuei dagokionez, Hitzarmenean ezarritako txostenak bete dira, eta ahalik eta arinen bidali dira.

2004. urtean zehar, noizbehinka, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako kontsultak jaso dira; Jarduera Protokoloari buruzkoak dira, eta, horien bidez, II. eta III. Eranskinetako testua bidaltzeko eskatu dute, agiriak falta zaizkielako.

Abegiko baliabideei dagokionez, irregulartasunak izan dira arlo horretan eskumena duten udal batzuen jardueran; esate baterako, emakumeei salaketa bat jartzeko eskatzea, edo udalerrikoak izan arren bertan erroldatuta ez dauden emakume inmigranteak gaitzestea; izan ere, hori ez dator bat gai honi dagokionez ezarrita dauden gomendioekin.

Emakume eta Familiarentzako Zerbitzu Berezia.- Beren kargura seme-alabak dituzten edo horrelakorik ez duten emakumeentzat dagoen larrialdietako zerbitzuari eutsi zaio; aurtan, baina, indartu egin da, irailean lankidetzara-hitzarmena egin baita pertsona ezinduei 12 plaza dituen larrialdiko abegi-zerbitzua egiteko. Zerbitzu horretan, etengabe, langile espezializatuak egongo dira, hartara, etxeko tratu txarren biktimei eta haien seme-alabei lehen laguntza eman ahal izateko, arazo horri ondo egokitutako laguntzeko zerbitzuak eta segurtasuneko neurriak eskainiko dituzte, eta, horrenbestez, zerbitzu horrek zubi-lana egingo du pertsona horiek beste abegi-baliabide batzuetara sartu ahal izateko, hala behar den kasuetan.

Aurten, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako zentroan abegi egiteko larrialdiko eskaerak nabarmen egin du gora. Bestalde, arazo horretaz gain, baliabide sozioekonomikoen eta etxebizitzaren gabezia dago, eta, hortaz, zentroko egonaldiak, irteera bermatu artekoak, gero eta luzeagoak dira, eta, horrenbestez, baliabide erabilgarriak gainezka daude.

Era berean, Oinarrizko Gizarte zerbitzuetatik iritsi diren abegi-eskaera guztiak aintzat hartu dira, eta, emakumea hartu ondoren, banan-banakako plana prestatu da haren egoera, arazoak eta baliabideak aintzat hartuta.

Babes-aginduari buruzko Legea eta dagozkion koordinazio protokoloak indarrean sartu direnetik, etengabeko harremana egon da Koordinazio Zentroarekin/Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin; eta laguntzeko neurriei eta gizarte-babesari buruzko txostena bidali zaie Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeei abegi egiteko dituen zentroetan babesteko aginduarekin sartuta dauden emakume guztiei. Gero, EAEren esparruan orain dela gutxi ezarri den etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloan ezarritakoarekin bat etorrira, bidalitako txostena ere aurkeztu da, Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmenaren III. Eranskinean jasota dagoena. Ildo horretan, disfuntzio batzuk ikusi dira, epaitegiek emandako babes-aginduei buruzko informazioa zentro koordinatzaileak jasotzeko erabiltzen duen programa informatikoaren zailtasun tekniko batzuen ondorioz.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia jarri du abian; hor hainbat erakundek eta elkartek parte hartzen dute, eta Bizkaiko genero-indarkeriaren arloan lan egiten dute. Behatokiaren xedea da informazio-sistema bat eratzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurka izaten diren indarkeria kasu guztien zaintza eta jarraipena egin ahal izateko, eta, orobat, erakundeek tratu txarrak direla eta abiarazi dituzten politikek duten eragina ikustea; horretarako, politika horien garapena, ezarpena eta ondorioak aztertuko dira. Horrekin guztiarekin bilatzen dena baliabide erabilgarriak benetan dauden premietara egokitzea da. Organo horrek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko Hitzarmenean jasota dauden jarduerak koordinatu eta osatuko ditu.

Era berean, komenigarritzat jo da sistema bateratua sortzea, gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko eta ustiatzeko, horren bidez, arazoaren benetako ikuspegia izango baikenuke eta baliagarria izango bailitzateke jarduteko politikak zuzentzeko.

Esparru judiziala.- Arlo honetan, Aldundiak ezagutzen du auzitegiko medikuak jarraipena egin duena, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin harremana izan dena , eta prozedurak bizkortu egin direna.

Abokatuen Elkargoa.- Berariazko ofizioko txandak jarduera berezia egiten du biktimei letratuaren laguntza eskaintzeko; zeregin hori ezagutzera eman da, eta, hartara, biktimei laguntza hobea eskaini ahal izan zaie, eta, beraz, txanda indartzea oso onuragarria izan da”.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

“Jarduteko protokoloa oro har behar bezala bete da, Babesteko Agindua indarrean jarri den arte; izan ere, horrek koordinazioa zaildu du, epaitegiak eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak ez baitira orain dela gutxira arte informatizatu.

Zailtasunak izan dira biktimari informazioa eman eta salaketa aurkezteko aholkua eskainiko dion letratua eskatzeko garaian.

Informazioa berandu iritsi zaie Gizarte Zerbitzuei, eta ez zaie ezarritako bidetik heldu.

Gaur egun, zailtasun horiek gainditzen ari dira, eta protokoloa betetzen da.

EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

“Jarduteko tresna koordinatu horiek abiaraztea onuragarria izan da”.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN FISKALTZA

“Jarduera Protokoloa sinatu duten erakundeek egin duten lana oso egokia izan da, protokoloa 2004. urtean bete ahal izateko. Aurreko urtean bezala, Ertzaintzak ahalegin handia egin du epaileek hartutako zuhurtasunezko neurriak betetzen direla kontrolatzeko, eta, hartara, jarraipen berezia eta banakatua egin du kasu jakin bakoitzean. Bestalde, hori biktimen segurtasunaren onerako izateaz gain, bada, aukera ematen dio Fiskaltzari

zuhurtasunezko neurri askatasun-gabetzaileak eskatzeko arau-haustea egiten dutenentzat, kasu horietan lurralde-burutzek egiten dituzten txostenak oinarritzat hartuta.

LEGEKARIEN EUSKAL KONTSEILUA

“Etengabeko prestakuntza ematea eta berariazko ofizioko txandan hastea dira elkargoek arlo honetan dituzten kezketako batzuk; horrez gain, bestalde, zerbitzu juridiko osoa eskaini nahi diete biktimei gai hauetan. Legekarien Euskal Kontseiluak jarduera protokoloen ezarpena koordinatzeko dauden batzordeetan parte hartzea onuragarria da elkar hobeto ezagutzeko, eta horrek harremanak errazten ditu, informazioa ematerakoan eta egon daitezkeen disfuntzioak zuzentzerakoan.

Alabaina, koordinazioa hobeto egin behar da (batez ere Ertzaintzarekin), biktimaren aurreneko eskubidea benetan lortu nahi badugu, alegia, biktimak prozesuen eta esku-hartze judizialaren gaineko informazioa jasotzeko duen eskubidea benetan lortu nahi badugu. Era berean, Doako Justiziari eta ofizioko letratuaren izendapenari buruzko informazio-alderdiak zuzentzeko ahalegina egin da. Horretarako, Bizkai Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak azalpen-agiri bat prestatu du, biktimari laguntzeko unean ematen zaiona. Agiri horren frogagiria biktimari laguntzen dion letratuak gordetzen du, hartara, argi eta garbi gera dadin Guardiako Epaitegiaren egoitzan eta/edo, hala behar denean, Ertzaintzaren Komisarian ematen den laguntza (zuzenekoa eta/edo telefono bidezkoa) doakoa dela beti, eta prozedura zibilak (familiakoak) edo penalak (falta-epaiketak, delitu-epaiketak) doakoak izango direla edo ez, betiere, biktimari Doako Justiziaren onura onartzen zaion heinean”.